

ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ETA ARLO HORRETAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua da etxebizitzetarako irisgarritasuna sustatzea eta zehaztutako obrak egiteko diru-laguntzak arautzea.

Indarrean dagoen irisgarritasuna sustatzeko legediak aintzat hartzen du, pertsona ezinduen aukera berdintasunaren eskubidea berretsi eta horien desabantaila eta zailtasunak aurreikusi edota konpentsatzeko ekintza positiboko neurrien beharra. Aldi berean, aginte publikoei eta, orokorrean, gizarte osoari eskatzen die honako erabaki egokiak har ditzaten: Beste hainbat helbururen artean, pertsona horientzat ingurune fisikorako (zentzu zabal batean ulertuta: Hiri-ingurunea, espazio publikoak, eraikinak, e.a.) sarbidea ahalbidetzea eta bermatzea, modu eraginkor eta erreal batean.

Une honetan egun dauden eraikinetan kokaturiko etxebizitza askok, nahiz eraikin horiek beraiek ere, ahalmen urritasuna dutenentzako irisgarritasun arazoak eta zailtasunak dituzte. Irisgarritasuna oztopatu edota eragozten duten hirigintza- edota arkitektura-trabak.

Ordenantza honen helburua da indarrean dagoen legedia eta hirigintzako planeamenduaren barruan bizitoki diren etxebizitzetara sarbidea bermatzeko neurriak eta irizpideak ezartzea eta arautzea. Horretarako beharrezko diren obrak eta jarduketak egingo dira, igogailuak jartzea barne.

Ordenantza honek hiru lerro ditu: lehenengoak hirigintzako araudiak dituen oztopoak konpontzen ditubai antolamendu arloan (kalifikazio, erasan...) bai eraikuntza arloan; bigarrenak Lurzoru eta Hirigintzako legearen 177 art. garatzen du, beharrezko den kasuetan udal desjabetze ahala arautuz, eta hirugarrenak, aipaturiko obrak diru-laguntzak arautzen ditu.

02/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen 177. artikulua, desjabetzeko hirigintza-arrazoien artean, ondorengoa zehazten du: Erabilera nagusia bizitegikoa duten eraikinetan, sektoreari dagokion legedian aurreikusitako irisgarritasuna bermatu ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzuak eta instalazioak eguneratzeko eginbeharra betetzen ez denean. Horrelakoetan, administrazio desjabetzailea udala izango da, eta onuraduna, berriz, jabeen elkartea edo kasuan kasuko obrak egikaritzeko gehiengo nahikoa duena. Onuradunak desjabetzea eskatu beharko du honako hauek egiaztatuz: Batetik, udalaren baimena duen edo izan dezakeen proiektu bat sustatzen duela, eta bestetik, aipaturiko obrak ezin dituela hasi, obrek eragindako ondasun eta eskubide guztiak baliatu ezin dituelako.

Ordenantzaren helburua da, indarrean dagoen legedia eta hirigintza planeamenduaren testuinguruaren baitan, ahalmen urritasuna dutenen eta horiekin pareka daitezkeen sarbidea ahalbidetu eta bermatuko duten esku-hartzeko irizpide nahiz neurriak xedatzea eta arautzea. Etxebizitza eta bizileku



erabilerarako eraikinetarako sarbide hori ahalbidetu eta bermatzeko beharrezkotzat hartzen diren obra eta jarduketak burutzearen bidez, igogailuak eta arrapalak jartzea barne.

Ordenantza honela dago banaturik: I. Kapitulua, irizpide orokorrei buruzkoa, II. Kapitulua, obra eta jarduketan baldintza materialei buruzkoa, III. Kapitulua, obra proiektu teknikoaren eduki eta tramitazioari buruzkoa, IV. Kapitulua, obrak eta jarduketak burutzeko epeei buruzkoa, eta V. Kapitulua, Lurzati, eraikuntza eta etxebizitzetarako sarreraren egokitzapena bermatzeko, desjabetzearen bidezko jarduketari buruzkoa. Ordenantza hau 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen xedapenez baliatu da, lege horrek Hirigintza Antolamenduaren Udal Ordenantza Osagarriak tramitatzea tokiko legediaren esku jartzen baitu, eta VI Kapitulua, aipatutako obrak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzei buruzkoa.

I.KAPITULUA

IRIZPIDE OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren helburua.

Ordenantzaren helburua da, indarrean dagoen legedia eta hirigintza planeamenduaren testuinguruaren baitan, irisgarritasuna bermatzeko irizpideak eta eskuartze neurriak zehaztea eta arautzea dagokion sektorearen araudiaren barruan eta hiriko bitoki nahiz ekipamendu eraikinetan. Horretarako beharrezko instalazioak egingo dira, igogailu, arrapala, plataforma eta eskaillera-igogailuak barne. Horrekin batera, aipatutako instalazioetan obrak egiteko diru-laguntzak arautzen dira.

2. artikulua. Ordenantzaren aplikazio eremua.

2.1. Ordenantza hau eta bere aurreikuspenak, orokorrean, aplikagarriak dira berau indarrean jarri aurretiko eraikinetan, baldintza hauek betetzen adituzte:

- a) Eraikuntza horiek bizileku-erabilera izango dute, nagusiki, indarrean dagoen hirigintza planeamenduan, nahiz eta izaera osagarria duten beste erabilera batzuk ere eman daitezkeen.
- b) Eraikin horietan kokaturiko etxebizitzak indarrean dagoen Ordiziako hirigintza planeamenduan finkatuta egongo dira.
- c) Etxebizitza horiek, edo horiei loturiko eraikin eta lurzatiek ere, irisgarritasun arazoak edo zailtasunak izan beharko dituzte, bizileku-erabilerarako eraikuntzetan dauden etxebizitzetako irisgarritasuna sustatzeko Ordenantza hau aplikatzea justifikatzen duten baldintzetan.
- d) Horien titulartasun-, erabilera- eta gozamen-erregimena edozein delarik ere, ezintasuna duen (edo duten) pertsonaren batek / batzuk edo 65 urte baino gehiagoko pertsonak okupatu beharko du / dute, legez, aipatutako etxebizitza horietako bat / - batzuk.
- e) Aurreko d) puntuan aipatutako pertsona horiek ohiko bizilekua etxe horietan bertan izango dute eta Ordizian eroldaturik egongo dira.



2.2. Helburu horrekin aurreikusitako obra eta jarduketek ondorengoetan izan dezakete eragina:

- a) Etxe horiek dauden eraikinen barruko lokal eta espazioetan (osorik nahiz zati batean). Sestrapekoak zein sestra gainekoak eta horien erabilera edozein delarik ere.
- b) Etxe horien osagarri diren eraikinen barruko lokal eta espazioetan (osorik nahiz zati batean). Aipatutako etxebizitzak dauden eraikin horiei loturiko bizileku erabilerarako lurzati berean daudenak.
- c) Irisgarritasun lanak egin behar diren eraikineko etxebizitzak.
- d) Eraiki gabeko lursailak, bizilekuetarako erakinari atxikitako bizilekuetarako partzela berean kokatuta daudenak.
- e) Bizilekuetarako partzela horretatik kanpo gelditzen direnak, edo horrekin zerikusirik ez dutenak. Lursail horiek mugakide izan beharko dute irisgarritasun arazoak dituzten etxebizitzak kokatuta daudeneko bizitegietarako eraikinarekin.

2.3.- Nolanahi ere baimena emango da, baldin eta etxebizitzak edo etxebizitza zatiak obrak eta jarduerak, indarrean dagoen hirigintzako antolamenduan ezarritako irizpideen arabera baldin badira, kokatuta daudeneko solairua edozein delarik ere. Salbuespen gisa, eta behar bezala egiaztatu ondoren, baimenduko dira irisgarritasun arazoari bestelako irtenbiderik eman ezin zaionean eta eraikitako muga barruan eta ordenantza honek ezarritako baldintzetan.

2.4. Lurzati batzuetan dauden hainbat eraikinetako etxebizitzetako sarrera ahalbidetzeko helburuarekin planteatu daitezke zenbait obra eta jarduketetan.

3. Artikulua.- Jabari publikoa eta hirugarren pertsonak erasatea.

3.1.- Jabari publikoari eragiten dioten konponbideak kasu honetan onartuko dira soilik: proiektu teknikoan arrazoitzen bada beste aukerak baztertu egin behar direla ezin direlako gauzatu edo neurritz kanpokoak direlako eta afektazio hori ahalik eta txikiena izaten saiatu beharko da.

3.2. Etxebizitzaren desjabetze partziala edo bere zuloen ezeztatzea dakarten obra eta jarduketan baimenak ez du ekarriko inolaz ere, bizigarritasun baldintzak galtzea edo azpi-etxebizitza bihurtzea. Egiaztatu egin beharko da desjabetuari egiten zaion kaltea ez dela jarriko diren irisgarritasun neurrien instalazioarena baino handiagoa.

3.3.- Ez dira baimenduko guztizko desjabetzea dakarten obrak ebazpen judizial irmo bat ez bada. Halere, baimenduko dira zortasunari eragiten diotenak, hala nola, argi eta bistena, nahiz eta kasu horietan ondorio kaltegarriak gutxitzeko neurriak hartuko diren.

4. artikulua. Ordenantza hau aplikatzeko, zer den ahalmen urritasuna izatea.

4.1.-Ordenantza honi eta ordenantzaren xedapenei dagokienean, ahalmen urritasuna duen pertsonatzat hartuko da mugikortasuna modu iraunkorrean murriztua duen pertsona oro, ezintasuna dagokion



administrazio eskudunak kalifikatu eta balioztatua dutenak. Kalifikazio horretan zehaztuko da etxebizitzara iristeko duen ezintasun mota eta maila.

4.2.-Pertsona ezindutzat har daitekeela ezartzen duen lege aurreikuspenaren arabera, etxebizitza duin batez gozatzeko trabak kentzearen eta, helburu horrekin, Ordenantza honetan arauturiko neurriak aplikatzearen, hirurogeita bostetik gorako guztiak halakotzat hartuko dira.

II. KAPITULUA

OBREN ETA JARDUKETEN BALDINTZA MATERIALAK

5. artikulua. Irizpide orokorra.

Orokorrean eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, ordenantza honek eragindako eraikin eta etxebizitzaren sarrera egokitzearen nahiz helburu horretarako beharrezkoa diren elementuak (igogailua barne) jartzearen burutu beharreko obrak egokituko zaizkio hirigintza planeamenduan ezarritako hirigintza baldintzei nahiz baldintza teknikoari, proiektu hau indarrean sartu aurretiko hirigintzako planeamenduan ezarritakoei, bere garapenean sarturiko xedapenak barne- eraikuntza ordenantzak...-

6. artikulua. Indarrean dagoen hirigintza planeamenduan eta horren garapenerako zehaztutako xedapenetan ezarri diren baldintzak birdoitzea.

6.1. Indarrean dagoen hirigintza planeamenduan eta horren garapenerako zehaztutako xedapen guzti-guztien arabera, ordenantza honek eragindako eraikinen ezaugarri fisikoek eta materialek, eraikin horietako etxebizitzaren sarrera egokitzearen beharrezkoak diren obrak burutzea eta elementuak instalatzea (igogailua barne) galaraziko balute, ondorengo irizpideen arabera jardungo da:

a) Etxebizitza horien sarrera egokitzearen burutu beharrezko obrak eta instalatu beharreko elementuak, indarrean dauden xedapen haietara egokituko dira; hots, xedatutako helburua eragotzi nahiz zailtzen ez duten gai eta arlo guztietan.

b) Bestalde, xedatutako helburua (eraikin horietako etxebizitzaren sarrera fisikoa ematea) eragotzi nahiz zailtzen duten aurreikuspenek araututako gai eta arloei dagokienean, ondorengo irizpide eta baldintzen arabera jardungo da:

6.2. Lehentasun-ordena:

Aipatutako helburuarekin burutu beharreko obrak eta instalatu beharreko elementuak, ondorengo eremu nahiz espazioetan burutuko dira. Baita honako lehentasun orden honetan ere:

a) Eskailera zuloa, ahal izanez gero, beste edozein aukera baino bidezkoagoa denean.

b) Eraikinaren ingurukariaren barruan, patioa barne, aurreko aukera ezinezkoa denean, edo beste aukeren artean egokiena denean. Geletako argitasuna eta aireztapena bermatu beharko dira.



c) Fatxadan, eraikinari loturiko lur-zatiaren barruan, aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean. Bai eta beste aukeraren bat baino egokiagoa denean.

d) Fatxadan, eraikinari loturiko lurzatiatik kanpo, aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean eta

e) jabego pribatuko lokaletan, beti ere lokalaren guztizko galera ez badakar.

f) Etxebizitzetan, azpi-etxebizitza bihurtzen ez badira, edo irisgarritasun baldintzak instalatzeak dakartzan baino kalte gehiago sortzen badira.

g) Justifika daitezkeen beste aukera batzuk:

6.3. Berme orokorrak:

Gai horren inguruan proposaturiko irtenbidea edozein delarik, oinarrizko baldintzen mantenimendua eta zaintza bermatu beharko dira. Alde batetik, eta egungo ezaugarriren baten aldaketa kaltetu gabe, zuzenean eragindako eremu nahiz espazioek – sotoa, eskailerak, patioa, fatxada - helburu horretarako egokiak izaten eta horiei dagokien zerbitzua ematen jarrai dezaten. Beste aldetik, eremu horietaz baliatzen diren etxebizitza nahiz lokalek, dagokien erabilera edo jarduera esleitzeko, beharrezkoak diren oinarrizko baldintzak izaten jarrai dezaten.

Zehaztutako baldintzak beteko direla bermatu ahal izateko, kasuan kasu ebaluatuko dira eta aipaturiko espazio edo eremuetan planteaturiko proposamenek sor ditzaketen edonolako eragin edo kaltearen – fisika, estetika, akustika, etab.- ezinbesteko xehetasunak erantsiko zaizkio. Eragin edo kalte horiek zuzendu edo deuseztatze beharrezkoak diren tresnak zehaztuko dira, helburu horretarako egokizat hartzen diren material eta makineria barne.

6.4. Etxebizitzetarako sarrera, bai eskailera zulotik, bai patiotik, bai beste irtenbideren batetik (fatxadan eragiten dutenak barne). Sarbidea egokitze aldera emandako irtenbideak ondorengo irizpideei egokitu zaizkie:

Burutu beharreko obrak eta instalatu beharreko elementuak honako honetan ezarritako irizpideei egokitu zaizkie:

a) 68/2000 Dekretuaren (apirilaren 11koa) V. Eranskinari, edo hori ordezkatzeko aurrerantzean eman daitezkeen beste legezko xedapen bati.

b) Suteen aurka babesteko gutxieneko baldintzak zehaztuko dira, besteak beste, DBSI («Documento Básico S.I. Seguridad en caso de Incendio») delako dokumentuaren III. Atalean (Aplikatu beharreko irizpide orokorrak) xedatutakoaren arabera, DB-SI delako dokumentuan bildutako irtenbideak ez ezik, beste batzuk ere erabiltzea baimentzen duena. Horrelakoetan Eraikuntza Kode Teknikoaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio eta proiektuan oinarrizko eskakizunak betetzen direla dokumentatu beharko da. Hain zuzen ere, eskaileraren gutxieneko zabalera izango da araudi horrek biltzen dituen xedapenak, III. Atalean adierazitakoak (Aplikatu beharreko irizpide orokorrak) barne, aplikatzearen ondorioa.



c) Eskera egiteko unean indarrean daudenak planeamenduko agirietan.

d) Antzekotasunagatik, Indarrean dagoen Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko araudian (2002ko abenduaren 30eko 317. Dekretua) zehaztutako irizpideak ere aplikagarriak izango dira.

6.5. Indarrean dagoen hirigintza araudiko beste xedapen batzuk birdoitzea.

Aipatutako eraikin eta etxebizitzetarako sarrera fisikoa egokitzeko irtenbideak bidezkoak eta egokiak diren guztietan, horiekin mugakide diren lursailei reagiten dietenean, haien garapenak eta burutzapenak indarrean dauden beste xedapen batzuk

(lursail horien hirigintza kalifikazio erregimena, lurzatatze eta jabari baldintzak, horien izaera juridikoa barne, eraikinaren lerrokadurak, behar bezala justifikatutako bestelakoak) birdoitu behar direnean, birdoitze horien edukia eta eskumena honako hauetatik ondorioztatuko da:

a) Bai, zuzenean, proiektu hau eta aipatutako erabakiak era bateratuan kontuan hartzetik, edo

b) Bai Plan Berezi edo Xehetasun Azterlanetik. Hau da, hala badagokio eta balizko kasu bakoitzaren egoera bereziak kontuan harturik, helburu horretarako, sustatzea erabakitzen den azterlanetik.

Kasuan kasuko arazo eta egoera bereziak kontuan harturik, ondorengo erabakiko da:

Bai birdoitze horiek proiektu hau nahiz proposatu eta onartutako irtenbideak era bateratuan hartzearen ondorio direla, bai horretarako beharrezkoa dela Plan Berezia edo Xehetasun Azterlana aurretik idaztea eta onartzea, birdoitze horien eskumen eta izaeraren arabera.

7. Artikulua.- beste baldintza batzuk.

7.1.- Aipaturiko eraikin eta etxebizitzetarako sarrera egokitzeko eraikuntzak, instalazioak eta elementuak, igogailua barne, ez dira lursailean edo erasandako eremuan baimendutako eraikin aprobetxamendurako zehaztapanetan konputagarriak izango.

7.2.- 6. artikuluan azaldutako proposamen eta baldintza teknikoak aplikagarriak izango dira eragindako etxebizitzetan eraberritze –eta birgaitze– obrak eginez gero eta haien indarraldia eta aplikazioa horiek mantentzeari loturik daudela ulertuko da.

7.3.- Eraikin horiek ordezkatu eta erabat eraberrituz gero, aurreikusitako eraikin berria, proiektu hau indarrean jarri aurretik indarrean zeuden hirigintza xedapenei eta xedapen tekniko guztiei egokituko zaie.

7.4.- Indarrean dagoen hirigintzako araudian doiketak egiten direnean, aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera, helburu hauek bermatuko dira:

a) Sarrera etxebizitzetara dagokien araudiari egokitu izatea.



b) Eragindako eremu edo espazioak –eskailera zuloa, patioa, fatxada, e.a.– dagokion zerbitzua emateko egokiak diren ezaugarri eta baldintzak izatea.

7.5.- Aipaturiko etxebizitza eta eraikinetarako sarrera egokitzeko irtenbideak, kasuan kasu, dagokien obra proiektu teknikoan edota eraikuntza proiektuan definituko dira.

Proiektu horiek udal obra lizentzia egokia lortzeko egin beharrekoak dira.

7.6.- Ordenantza honetan adierazitako hirigintzako aurreikuspen eta aurreikuspen teknikoen aplikazioa, eragindako eraikinetan egin litezkeen birgaitze eta eraberritze obrei eta horiek mantentzeko lanei dagokiela ulertuko da. Ez, ordea, horiek ordezkatzeko nahiz osotasunean eraberritzeko lanei.

7.7.- Hirigintza Ondarearen Katalogoaren barne dauden ondasunak eta eraikinak direla kontuan harturik, obra horietarako baimena ondorengo baldintzen menpe egongo da: Ondasun eta eraikin horiek baldintza egokietan babesteko eta mantentzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak zehaztea eta burutzea.

7.8.-Ondasun eta eraikinhoriek degradatu eta ahulduko duten obrak burutzea edo instalazioak ezartzea ez da inolaz ere baimenduko.

III.KAPITULUA

OBRA PROIEKTU TEKNIKOAREN EDUKIA ETA TRAMITAZIOA

8. artikulua. Aurretiko kontsulta.

Aldez aurretik interesdunek kontsultak egin ahalko dituzte idatziz iresgarritasunaren bideragarritasunaren inguruan , bai ikuspegi teknikoetik bai desjabetze aldetik.

9. artikulua. Proiektu teknikoaren edukia.

9.1.- Proiektuak titulaziodun profesional gaituak sinatuak egongo dira. Ondorengo alderdiok jasoko dituzte gutxienez: oin planoak, altxaera eta sekzioak 1:50 eskalan, eraikinaren oin osoa 1:200 eskalan jasoz eta fatxada aldekoa bada, altxaera eta sekzioez gain zerbitzua ematen dion eraikina. Eskaerekin batera ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Profesional gaituak sinatutako obra-proiektua. Bertan, teknikari-idazleak egoki iriztitako arloez gain, ondorengo zehaztapenak eta erreferentziak agertuko dira:

a) Hartutako konponbidearen azalpen-memoria, igogailua eraikinaren beste edozein lekutan jartzeko ezintasuna behar bezala arrazoituko duena, eta proposatutako konponbidea, hirigintza, eraikuntza eta konposizioaren ikuspegiatik egina.

b) Eraikuntza eta ingurunearen uneko egoeraren argazki-erreportajea eta, babestutako eraikinak direnean, amaierako irudiaren fotokonposizioa.



c) Eragindako ingurunearen planoak behar bezalako eskalan, mugetaraino eta beste eraikinetaraino dagoen tartea zehaztuz. Bertan, ingurunean dauden oinezkoen ibilbideak eta errepedeak adieraziko dira eta igogailu-dorreak horiengan duen eragina azalduko da.

d) Eraikuntzaren gaur egungo planoak eta berrikuntza egin ondorengoak (oinplanoak, sekzioak eta altxaerak).

e) Eraikuntza lanen planoak eta muntaiaren eta egituraren zehaztapenak.

9.2. Hirigintza-lan osagarrien eranskina, proposatutako instalakuntza inguratzen duen urbanizazioaren konponbidea kontuan hartuko duena.

Proiektuak, gainera, berariaz aipatuko ditu honako gai hauek:

a) Hiri eremuan egin beharreko erremateen ezaugarriak, sestrak, nibelak eta urak ateratzeko baldintzak.

b) Hiri-instalazioetan sortutako eraginak. Horretarako, jarduera-eremuan dauden zerbitzuen planoak aurkeztu beharko dira.

c) Igogailu-dorrea jartzeak inguruan dagoen urbanizazioarekin elkarrekin sortzekotan edo bidezaintza edota erakunderen baten hiriko elementuak kaltetzekotan, deskribapen eta plano zehatza aurkeztuko da eta bertan hartutako hirigintza konponbidea azalduko da.

3. Jabekideen komunitateak igogailua instalatzeko hartutako erabakiaren hitzez - hitzeko egiaztagiria aurkeztuko da. Erabaki horretan, gainera, jabekideen komunitatea instalazio ereduarekin ados dagoela adierazi beharko da. (Adostasun baliozkoa eta legeak adierazten duen quorum-ak errespetatuz lortua) Aurreko atalean aipaturiko agiriez gain, udalak eska dezake beste agiriren bat bolumena eta ondoko hiritartzearekin duen harremana hobeto ulertzen laguntzeko, eta baita exekuzio materialak eta bukaerak proposamena ondo ikus eta ulertzeko, bere bideragarritasun teknikoaz gain.

9.2.- Eraikin eta etxebizitzetarako sarbideen egokitzeak proiektu teknikoan adieraziko dira zehaztasunarekin. Proiektuak, berari dagozkionaz gain, konponbide horietarako beharrezko diren aurreikuspenak jasoko ditu. Bere edukia nahiz izapidetzea, proiektu honekin onartzen diren agirietara lotuko dira.

9.3.- Aipaturiko obra proiektu teknikoak, bestek beste, zehaztasun egokiaz azalduko ditu ondorengoak:

a) Ordenantza honetan ongi ezarritako irizpideetara egokitzea, proiektua justifikatzen duten egoeren azalpena barne.

b) Aukeraren azterketa eta egin nahi denaren arrazoiketa, batez ere lokal edo etxebizitzaren desjabetzea egin nahi bada, haien galera partziala arrazoituz eta emandako proposamena arrazoituz beste balizko aukeren artean, guztia aurreko artikuluetan adierazitako irizpideei jarraiki.

c) Proposatutako irtenbideak, horrek eragindako eremuan, sor ditzakeen edozein motako eragin eta afekzioak (fisikoak, estetikoak, akustikoak eta abar) ebaluatzea.



d) Eragin eta afekzio horiek zuzentzeko edo desagertzeko proposamenak, baita helburu horretarako egokiak diren material eta makinak erabiltzeari dagokionean ere.

e) Hala badagokio, proposaturiko irtenbideak sortuko dituen eragindako lursailen, horien lurzati- baldintzen, eraikuntzaren lerrokaduren, lursail horien izaera juridikoaren eta abarren hirigintza araudiaren egokitzapenetara eta ordenantza honetan ezarritako irizpideetara egokitzea.

f) Proposatutako irtenbideak eragindako ondasun eta eskubide guztien zerrenda, ezaugarrien deskribapena eta titularren identifikazioa. Bai eta, hala balegokio, desjabetu beharreko ondasunen eta eskubideen balorazioa ere.

g) Obrak burutzearen eta instalazioak ezartzearen kostua, horiek eragindako eraikinaren lursailak edota lokalak eskuratu edota erabiltzearen kostua barne, hala dagokionean.

h) Jabeen elkartearen akordioa obra proiektua eta desjabetze proiektua onartzeko.

i) Indarrean dagoen planeamenduan adierazitakoaren arabera, beharrezkoak diren beste edozein egoera eta alderdi.

10. artikulua. Proiektu teknikoa tramitatzeko eta onartzeko baldintzak.

10.1. Proiektu teknikoa tramitatu eta onartu egingo da, indarren dauden lege xedapenetan ezarritako irizpideei jarraiki, obrak burutzeko eta instalazioetarako udal lizentzia egokia eskatu eta eskuratzearen ondorioetarako.

lido horretan, udal zerbitzu teknikoek zehatz-mehatz aztertuko dituzte eragindako etxebizitza eta eraikinetara sartzeko proiektuan proposaturiko irtenbideak.

Azterketa horretan agertuko dira behar bezala arrazoiturik, besteak beste, proposatutako irtenbidearen arrazoizkotasunari buruzko ebaluazioa eta irtenbideak sor ditzakeen eragin eta afekzioena, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen hirigintza planeamenduan ezarritako baldintza eta irizpideen baitan. Proiektua udalak atzera bota dezake ikusten badu baldintzak ez direla betetzen, bai alderdi teknikitik begiratuta bai irisgarritasun eskubidearen balorazioa ez bada nagusitzen beste eskubide publiko edo pribatuen gainetik. Orduan arrazoitutako ebazpena emango da ezestearen zioak adierazita.

10.2. Proiektu hori alde informatu ondoren, jendaurrean jarriko da 20 eguneko epean, gutxienez, aurreikusitako obra eta jarduketek eragindako guztiei, banan-banan, jakinarazi ondoren; bai aurreikusitako obra eta jarduketek eragindako ondasun eta eskubideen titularrei, bai horien jabeen eta erabiltzaileei (maizter eta abarrei) dagokion legezko agiriaren bidez.

Tramitatzeko epe horretan, proiektuan azaldutakoari iradokizun edota proposamen alternatiboak aurkeztu ahal izango zaizkio.

10.3. Tramitazioa amaitu eta proposaturiko iradokizun eta proposamenak aztertu ondoren, Udalak dagokion lizentzia emateko ala ez emateko erabakia hartuko du.



11. Artikulua.- Lehen erabilerako eta funtzionamendurako hirigintzako lizentzia .

Baimendutako instalazioa martxan jarri aurretik, lizentziaren jabeak lehen erabilerako eta funtzionamendurako hirigintzako lizentzia eskatu beharko du.

12.Artikulua.- Obren exekuzio epeak eta aurreikusitako eta baimendutako jarduketak.

12.1.- Izaera orokorrekin proiektu teknikoan aurreikusitako proiektuak udal lizentziarekin hiru hilabeteko epean hasi beharko dute lizentzia ematen denetik kontaktzen hasita.

12.2.- Epe orokor hori doitu daiteke, bai luzatuz bai laburtuz, obraren udal lizentziaren arabera, eta kasu bakoitzaren izaera aintzat hartuta. Ondasunak desjabetu behar diren kasuetan obra egiteko, epea hasiko da onuradunak ondasunak dituen unetik kontaktzen hasita.

IV KAPITULUA

ADMINISTRAZIO EMAKIDARI BURUZKO ARAUAK

13. artikulua. Lehia publikoa baztertea.

Eraikinen kanpoaldean igogailu-dorreak jartzeko obren erabilera- edo aprobetxamendu-ezaugarri bereziak aintzat hartuta, justifikatuta dago lehia publikora ez ateratzea. Hala, emakidaren zuzeneko esleipena ahalbidetu daiteke, betiere, kontuan hartuta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeko 93.1. artikuluan ezarritakoa 137.4.e. artikuluan aurreikusitako kasuari lotuta, izan ere:

- Zuzeneko emakida igogailu-erabilera eskatzen den eremu publikoaren lursailaren mugakide den finkako jabekideen komunitatearen mesedetan egingo da.
- Erabili behar den lursail publikoaren dimentsioa txikia da. Bertan, gainera, ezin da eraiki tamaina txikia eta forma aintzat hartuta.
- Lortu nahi den xedearen bidez –finkak igogailu komunitarioa izatea– eraikinean bizi direnen ongizate- eta kalitate-baldintzak hobetzen dira.

14. artikulua. Urteroko alokairuaren kanonaren salbuespena.

Lurzoru publikoa erabiltzeko jabari publikoko emakidaren berezitasuna dela-eta, igogailu bat instalatzeko, urteroko alokairuaren kanonaren salbuespena justifikatuko da lurzoru publikoa erabiltzeagatik, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeko 93.4. artikuluan xedatutakoaren babesean.

V. KAPITULUA

LURSAIL, ERAIKUNTZA ETA ETXEBIZITZETARAKO SARRERA BERMATZEKO, DESJABETZEAREN BIDEZKO JARDUKETA



15. artikulua. Desjabetzearen bidezko jarduketara arrazoitzea. Irizpide orokorrak.

15.1. Onura publiko eta interes orokorrekotzat hartuko da, eragindako etxebizitza eta bizileku-erabilerarako eraikinetan sarrera fisiko egokia jartzea helburu duten obren eta jarduketan burutzapena, behin betiko nahiz aldi baterako desjabetzeari edo horrek eragindako lursail edota etxebizitzaren zatiei dagokienez ere. Lursail eta etxebizitza horiek gaur egun dauden baldintzen ondorioz, ahalmen urritasuna dutenen eta horiekin pareka daitezkeen sarrera arazoak dituztenak izango dira.

15.2. Aurreikusitako obra eta jarduketan burutzapena aurreko artikuluan aipaturiko epeetan hasiko ez balitz, eta horren arrazoia eragindako ondasunak osotasunean zein zati batean ez edukitzea bada, Udalak desjabetze espedientea hasia erabaki lezake, indarrean dagoen lege irizpideen arabera, bai obra sustatzaileak edo sustatzaileak, bai beste pertsona fisiko nahiz juridiko batek edo batzuk hala eskatuz gero.

15.3. Obra eta jarduketan sustatzailetzat hartuko da izaera hori izan dezakeen edozein pertsona fisiko edo juridiko, beti ere indarrean dagoen lege irizpideen arabera izaera hori izan badezake.

15.4. Desjabetze eskaera hurrengo artikuluan ezarritako irizpideei egokituko zaie.

15.5. 2006ko ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen «177.j» artikuluan ezarritakoaren arabera, jabeen elkarteak edota, indarrean dagoen legediak horretarako jartzen dituen irizpideen arabera, obra horiek egiteko ahalmena eta eskumena dutenak izango dira desjabetzearen onuradun eta horri dagozkion kostu erantsi guztiak ere beraiek ordainduko dituzte.

Horretarako, desjabetze proiektuak bereziki identifikatu behar du desjabetzearen onuradun izango diren jabeen elkarteak, jabeen elkartearen zatia edo pertsonak.

15.6. Oro har, desjabetzeak eragina izango du aurreikusi eta baimenduta dauden sarrera egokitzeko obra eta jarduketan eragindako lursail osoetan edota eraikinaren zati batzuetan.

Nolanahi ere, desjabetze horrek, ezarritako epeetan obra eta jarduketan sustatzaileen esku ez dauden ondasunei baino ez die eragingo.

16. artikulua. Desjabetzeko eskaera.

16.1.- Desjabetze espedienteari hasiera emateko eskaera onuradunak izango diren pertsonak aurkez dezakete eta baita helburu horretara bideraturiko lanen sustatzaileak ere. Eskaerarekin batera proiektu bat aurkeztu behar da helburua eta arrazoiak argituz.

16.2.- Edonola ere, justifikazio hori loturik egongo da helburu horrekin egin den proiektu teknikoan aurreikusitako obra eta jarduketak burutzeko dagokion udal lizentzia aurretik ematearekin.



17 Artikulua.- Desjabetzea arrazoitzea.

17.1.- Desjabetze proiektuak arrazoituko du udal lizentzian jasotako obra eta instalazioak nahiz ondasun partikularrak okupatzea edo erasatea beharrezko direla eraikinari irisgarritasuna bermatzeko eta ezin direla aurrera eraman nahiz eta ondasun horien jabeekin gestioak izan arren.

17.2.-Arrazoitze memoria bat aurkeztuko da eta bertan desjabetze bidezko eskuartzea arrazoituko da, batez ere alderdiok kontuan hartuta:

a) Eragindako etxebizitzaren batean eta batzuetan ahalmen urritasuna duen edo duten pertsonaren bat edo batzuk bizitzea.

b) Aurreikusitako obra eta jarduketek eragindako ondasunak eskuratu edo lortzeko zailtasuna edo ezintasuna.

c) Obra eta jarduera horiek hasteko ezarrita zeuden, eta bete ez diren, epeen iraupena, honako hauen adierazpena barne: Sustatzaileak nahiz sustatzaileek helburu horrekin buruturiko kudeaketa guztien adierazpena, horren inguruan onarturiko edozein akordio barne; obra eta jarduketa horiek, denbora- eta material-baldintza egokietan, burutzeko bestelako tresna nahikorik edo inolako tresnarik ez izatea, eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin eginiko akordioak barne, eta abar.

d) Interesa izan dezakeen bestelakorik.

17.3. Horrenbestez, desjabetze esku-hartzea justifikaturik egongo da, baldin eta ezarritako gainerako baldintzak egiaztatu eta ezarritako epea pasa ondoren, aurreikusi eta baimenduriko obra eta jarduketan sustatzaileak edo sustatzaileak eragindako ondasunak eskuratu ez badituzte, sarbide arazoari konponbidea emateko beharrezkoak diren une eta baldintzetan burutu ahal izateko.

18 Artikulua .- Desjabetze espedientearen edukia.

Desjabetze proiektuak honakoalderdiok jasoko ditu, besteak beste:

a) Desjabetzearen arrazoitze memoria, aurreko artikuluan adierazitakoa jasoaz.

b) Proposatutako desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, desjabetze horrek ondasun horien erabileran izan ditzakeen eraginak eta ondasun horien titularren jarduera.

c) Obrak sustatzeko baldintzak, bai jabeen elkartearenak bai bestelako pertsona fisiko nahiz juridikoenak eta sustapen hori bide eman dioten baldintzen inguruko informazioa.

d) Jabeen elkarteak harturiko erabakiak eta baita haien aurka jartzeak ere, proposamenaren aurka egindako pertsonen gestioak zehaztuz.

e) Proposaturiko desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubide guztien balio ekonomikoa; udalak doiketa egitea baztertu gabe.



f) Desjabetzearen onuradunak desjabetzeak berak eragindako ondasun eta eskubideen balio ekonomikoa ordaintzeko konpromisoa.

19 Artikulua. Aurretiko kontsulta.

19.1.- Aurreko atalean aipatutako proiektua egin eta aurkeztu aurretik, obra eta jarduketan sustatzaileak kontsulta bat aurkeztu ahal izango dio Udalari. Kontsulta honek ondorengo datuak jasoko ditu: Alde batetik, kasu bakoitzean desjabetzearen bideragarritasuna ezagutzeko beharrezkoak diren datuak eta, bestetik, kasuan kasu, desjabetzearen bideragarritasuna egokitu beharreko egoerak.

19.2. Kontsulta hori egin ahal izango da, aurreikusitako sarrera obra eta jarduketak burutzearren, Udalak dagokion lizentzia eman aurretik nahiz ondoren.

Kontsulta horrek, bereziki, desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen balio ekonomikoa buruzko estimazio teknikoa jasoko du.

20. artikulua. Desjabetzeko eskaera baloratzea. Espedientea tramitatzea.

20.1. Udal zerbitzu egokiek aztertuko dituzte bai desjabetzeko eskaera, bai gai horren inguruan indarrean dauden xedapenetan eta Ordenantza honetan ezarritako irizpideen arabera eginiko proiektua. Azterketa horretan, besteak beste, ondorengoak aztertuko dira:

- a) Aipaturiko irizpideak bete diren ala ez, eskatutako desjabetzearen justifikazioari dagozkionak barne.
- b) Kasuan kasuko proposamenei buruzko erabakiak, behar bezala justifikaturik, hurrengo gai hauen inguruan:
 - Desjabetzearen bidezko esku-hartze eskaera ez onartzea, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bete edo justifikatu ez direlako.
 - Eskaera eta proiektua tramitatzea, horren inguruan indarrean dagoen legedian ezarritako irizpideen arabera egingo dira.
 - Desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen balorazioa, aurkezturiko proiektuan jaso eta desjabetze espedienteari hasiera ematea egoki ikusten denean.

20.2.- Proiektua egiteari nahiz tramitatzeari dagokionean, aipaturiko legedian xedatutakoari jarraitu beharko zaio. Era berean, beharrezkoa den guztietan, bereizi egingo dira ondorengoak xedatzeari dagozkion faseak edo eginkizunak: Alde batetik, eragindako ondasun, eskubide eta titularren zerrenda eta, bestetik, ondasun eta eskubide horien balio ekonomikoa.

Hartara, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari dagokionean, nahitaezko desjabetzearen inguruan indarrean dagoen legediak ezarritako trataera eman ahal izango zaio eta horrela tramitatu eta halakotzat hartuko da.

20.3. Aurreko edozein kasutan, Udalak egoki deritzon erabakia/erabakiak hartuko du/ditu.



Desjabetzeko espedientea tramitatzea onartuz gero, Udalak zehaztu egingo du, kasuan kasu, zeini atxikituko zaion jarduketara: Tasazio bateratuaren prozedurari edo banakako tasazioarenari.

21. artikulua. Desjabetzea atxikitzea, indarrean dagoen legediak horren inguruan ezarritako irizpideetara.

21.1.- Ordenantza honetan adierazitakoaren osagarri gisa, ordenantza honen helburu den desjabetzea indarrean dagoen legediak horren inguruan ezarritako irizpideei egokituko zaie, oro har. Besteak beste, desjabetzeari hasiera ematea nahiz tramitatzea eta prezio zuzena zehaztea arautzen dutenak barne.

21.2.-Desjabetzearen onuradunak atzera eginez gero, aipaturiko irizpideak aplikatzearen ondorioei ere egokitu beharko zaizkie.

21.3.-Halakoetan, desjabetzearen onuradunak ordaindu beharko ditu horrek sortutako kostu guztiak Betebehar horrek ere aintzat hartzen ditu desjabetze jarduketak eta desjabetzearen onuradunak atzera egiteak desjabetuari sortutako kalteak ordaintzea.

21.4.-Kostu horien ordainketa bermatzearen, helburu horretarako Udalak egoki deritzon abala edo bermea gordailuan jartzea eskatu ahal izango dio desjabetzearen onuradunari. Oro har, gordailuan jartzea komeni den guztietan, desjabetutako aipaturiko ondasunen balio ekonomikoaren %20koa izango da abal hori. Hala ere, behar bezala justifikaturiko hainbat kasu jakinetan, handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen zenbateko horri kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritako kantitate depositua ez balego, desjabetze espedientea eten daiteke eta beraz, desjabetze espedientearen hasiera eten, interesdunari entzun ondoren.

Desjabetze espedientea tramitatzeak dituen gastuak desjabetzearen onuradunak ordaindu beharko ditu.

VI. KAPITULUA

LANETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK

22. artikulua.

22.1 Diruz laguntzeko modukotzat joko dira Ordenantza honetan ezarritako baldintzak beteko dituzten jarduerak.

2011. urteari dagokion lehen deialdia Ordenantza hau argitara emanaz egingo da. Ondoren, Ordenantza honetan erabakitakoaren arabera, aipatu diru-laguntzak arautuko dituzten deialdi-oinarriak emango dira argitara urtero.

Diruz lagungarriak izango dira:

— Urte natural bakoitzean, udal-lizentzia jaso duten eta horretarako eman diren epeen barruan bukatuko diren jarduerak.



22.2 Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera edukiko dute 2. artikuluan xedatutako ondasunen titular diren edo horien gaineko eskubide errealen bat duten pertsona fisikoek edo juridikoek, bere kasuan landu asmo den eraikinaren jabekideen erkidegoan eratuta.

Jabekideen erkidegoen kasuan, diru-laguntzak bideratzeko, erkidegoaren ordezkariaren bitartez egingo da. Aipatu ordezkariak diruz lagunduko den jarduerak barru hartuko dituen titular guztien ordezkaritza izango du.

22.3 Eskaerak aurkeztea.

Laguntza horiek eskatu nahi dituztenek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte udal-erregistroan:

a) Eskabide-orri normalizatua behar bezala beteta, deialdia arautzen duten baldintza guztiak onartzen direla adierazita, eta diru-laguntza jasoko duten obrak egingo diren eraikinak zenbat etxebizitza dituen adierazita.

b) Egin beharreko obraren edo esku-hartzearen aurrekontua, nahiz dagoeneko eginda dauden obraren faktura.

c) Eskatzailearen edo jabekideen erkidegoaren (eskatzailea berau denean) IFZ/IFKren fotokopia.

d) 2. artikuluan xedatutako ondasunen gaineko eskubide errealen titularitatea justifikatzen duten agiriak, bere kasuan landu asmo den eraikinaren jabekideen erkidegoan eratuta.

e) Jabekideen erkidegoak badira, jabekideen erkidegoaren banku-kontuaren titulartasuna frogatzen duen agiria; beronek, erkidego eskatzailearen identitatearekin bat etorri beharko du. Agiri hauetako edozeinek balioko du: banku-laburpenaren fotokopia; libretaren fotokopia; banku-erakundeak emandako ziurtagiria edo banku-erakundeak jarritako zigilua, diru-laguntza eskatzeko agiriko «erkidegoaren banku-datuak» atalean.

Eskaerak Udaletxean (astelehenetik ostiralera bitartean) publikoaren eskura dauden eskabide-orriak betez formalizatuko dira. Aipatu eskabide-orria bete ondoren, Ordiziako Udaletxeko erregistroan entregatu daiteke.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatugabea edo ez nahikoa denean, 10 egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, eskatzaileari adieraziko zaio eskaera egin gabetzat joko dela okerra konpondu ezean, eta artxibatu egingo dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren Legeko 42.1 artikulua araber.

22.4. Eskaerak eta aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea urtero egingo den deialdian finkatuko da.

2011. urtean eskaerak aurkezteko epea izango da oinarri hauen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik 2011ko abenduaren 31ra arte.



22.5. Onuradunaren betebeharrak.

Eskatzaileak, diru-laguntza eskatzerakoan, eta aipatu laguntza jasotzen badu, honako hauek betetzea hitzematen du:

— Obrak behar bezala egiteko eska daitezkeen lege-baldintza guztiak betetzea; horien artean, obretarako udal-baimena bideratzea. Horrez gain, obrak berarekin dakartzan erantzukizun guztiak bere gain hartuko ditu.

— Obrari dagokion proiektu teknikoa aurkeztea.

— Ordiziako Udaleko Obrak eta Hirigintza atalari obrak gauzatu bitartean gerta daitezkeen intereseko gorabeheren berri ematea, beharrezkoak diren esku-hartzeak bideratze aldera.

— Lanak bukatutakoan, honako hauek aurkeztea Udaletxean: obra bukaerako ziurtagiria (dagokion teknikariak sinatuta), edo hala dagokionean, faktura originalak edo kopia konpultsatuak; betiere, Udalaren aldeko txostena jaso badute.

Obra bukaerako ziurtagiriaren ordezkari ulertuko da frogagiri nahikoa dela Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako baimen buletina.

— Obra-baimenean adierazitako baldintzak eta epeak kontuan hartuta burutzea lanak. Urtero egingo den deialdian finkatuko da lanak amaitzeko epe-muga zein den.

2011. urterako, lanak bukatuta egon beharko dute gehienez ere 2012ko martxoaren 31rako, Udalak onartutako arrazoitutako kasuetan salbu.

22.6 Laguntzak.

Itzuli beharrik gabeko zuzeneko diru-laguntza da; horrenbestez, xede horretarako udal-aurrekontuan jasotako kopuru maximoa eraikin bakoitzeko etxebizitza-kopuruarekiko proportzionalki banatuko da, betiere baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean. Diru-laguntzen proportzioa kalkulatzeko, obra bakoitzaren inbertsioa hartuko da kontuan.

Diru-laguntzen proportzioa kalkulatzeko, ariketa matematiko hauek egingo dira: lehenik, etxebizitza-kopurua kontuan hartuta kalkulatu da proportzioa, eta ondoren, egindako inbertsioaren arabera. Eskatzaile bakoitzari dagozkion bi proportzio horiekin batez besteko aritmetikoa egingo da, eta horixe izango da behin betiko proportzioaren emaitza.

Tokiko Gobernu Batzordeak hartuko du diru-laguntzak emateko erabakia. Obrak eta Hirigintza batzordeak proposamena eginda emango da ebazpena, udal-zerbitzu teknikoak aurkeztu diren eskaerei eta proiektuei buruz landutako txostena oinarri hartuta.

Ebazpen hori hiru hilabeteko epean emango da, obrak burutzeko gehienezko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



Organo eskudunak berariazko ebazpena emateko daukan derrigortasuna eragotzi gabe eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko Legeko 71.1 artikuluan agindutakoa salbu, ebazpena emateko epea amaituko balitz eta organo eskudunak berariazko ebazpenik emango ez balu, eskabidea ezetsizat joko litzateke, presuntziosko egintzen erregimena ezarrita.

Urtero egingo den deialdian finkatuko da lanak amaitzeko epe-muga zein den.

Diru-laguntzak jasoko badira, obrek aldez aurretik bukatuta egon beharko dute; horretarako, obra-amaierako ziurtagiri onartua aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, faktura originalak edo fakturen kopia konpultsatuak, eta horiek Udalaren aldeko iritzia jaso beharko dute. Obra bukaerako ziurtagiriaren ordez ulertuko da frogagiri nahikoa dela Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako baimen buletina.

Onuradunak zerga-betebeharretan egunean egon beharko du.

22.7 Jarraipena

Udalak diru-laguntza jaso duten lanen nahiz bestelako esku-hartzeen jarraipena egingo du, aholkularitza teknikoa emango du, eta lanek Udalak baimendutako eta diruz lagundutako proiektura uneoro egokitu daitezzen bermatuko du.

Hasierako proiektuari eginiko aldaketak Udalak onartu beharko ditu. Xedapen hau ez betetzeak laguntza ekonomikoa kentzea edo bertan behera uztea ekar dezake.

22.8 Diru-laguntzaren muga.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa inoiz ez da izango, ez bakarka ez beste administrazio publiko zein entitate publikoren nahiz pribaturen (estatukoak edo nazioartekoak direla ere) diru-laguntzarekin batera, garatu beharreko jardueraren kostu osoa baino handiagoa. Nolanahi ere, Udalaren laguntza ez da izango egindako inbertsioaren % 25 baino handiagoa.

22.9 Araututakoa ez betetzea.

Oinarri hauetan finkatutako baldintzetakoren bat ez dela bete egiaztatzen denean, eta aurrez interesduna entzun ondoren, onuradunak jasotako diru-kopurua eta, hala dagokionean, horri dagozkion interesak (diru-laguntza ordaindu den unetikoak) itzuli beharko ditu.

22.10 Ebazpena aldatzea.

Diru-laguntza emateko garaian kontuan hartu diren baldintzak ezertan aldatzen badira, eta, nolanahi ere, beste administrazio nahiz erakunde publikoetatik zein pribatuetatik (estatukoa edo nazioartekoa dela ere) aldi berean diru-laguntzarik jasotzen bada, emakidaren ebazpena alda daiteke.



XEDAPEN GEHIGARRIABAKARRA

Ordenantza honetan aurreikusi ez denari dagokionez, indarrean dagoen legeriak eta ordenantza ezartzeko unean indarrean dagoen udal-plangintzako tresnetan ezarritakoek aginduko dute.

Diru-laguntzei dagokienez, berriz, interpretatzerakoan, ezartzerakoan eta deialdi honen ondorioetarako sor litekeen edozein zalantza Tokiko Gobernu Batzordeak ebaziko du.

Oinarri hauetan berariaz jasotako xedeaz harago dauden baina xede horrekin zuzeneko lotura duten laguntza eskaerak Obrak eta Hirigintza batzordeak aztertu ditu eta horri buruzko txostena egingo du, eta Tokiko Gobernu Batzordeak ebazpena emango du.

XEDAPEN IRAGANKORRABAKARRA

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik, gauzatze bidean diren jarduerak nahiz 2011.ean bukatutakoak aipatu data horretara arte unean-unean aplikatu daitezkeen legeriak xedatutakora makurtuko dira, eta ez zaie aplikatuko I. kapitulutik V.era bitartean ezarritako estipulazioak.

Ordenantza hauetan diru-laguntzen inguruan jasotako VI. kapitulua ezarriko zaie aipatu jarduerari; betiere, jardueraren barruan dagoen edo dauden etxebizitzaren batean edo batzuetan minusbaliotasun aitortua duen pertsonaren bat, edo 65 urtez gorakoren bat bizi bada. Etxebizitza hori edo horiek aipatu pertsona horien (Ordizian erroldatuak) ohiko bizilekua izan behar dute.

AMAIERAKO XEDAPENA BAKARRA

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epean indarrean sartuko da.

Data horretatik aurrera indarririk gabe geratuko dira ordenantza honen aurka joan litezkeen gainerako udal xedapen guztiak.

ALKATEA,

Behin behineko IDAZKARIA,

